
PRENTSA OHARRA

GALA KNÖRR ARTISTA SNAPCHAT GIZARTE SAREAZ BALIATU DA `SELF IDENTITY IS A BAD VISUAL SYSTEM` ERAKUSKETA SORTZEKO

Bilboko Udalaren arte produkzio zentroak erakusketa honetako atea zabalik izango ditu irailaren 28tik urriaren 18ra bitartean

(Bilbon, 2017ko irailaren 28an). BilbaoArtek bere erakusketa berria inauguratuko du, `Self Identity is a Visual System` izenburukoa, 2016an bekadun izan zen Gala Knörr artistak egina. Tamaina txiki eta handiko margolanek osatutako erakusketa honetan, bisitariak hainbat pertsonaia eta konposaketa eskainiko ditu Knörrek azken urte honetan Internetetik atera dituen eduki iragankorretan oinarrituak.

`Self Identity is a Visual System` erakusketak titulua hartu du Susanne Von Falkenhausen-ek e-flux journal izenekoan Veneziako Biurtekoaren 56. Edizioan argitaratu zuen saiakeratik, eta erakusketako lana Snapchat gizarte sarean oinarrituta dago. Espazio benetan berezia da, hain iragankorra izanik eta gizarte sare honetan argitaratzen diren edukiak segundo batzuetan desagertzen direnez, jakingura handia sortarazten duelako. Gala Knörrek Interneteko hainbat erabiltzaileri eskatu zien Snapchat izeneko gizarte sarean bizi izandako eguneroko esperientziaren irudi eta bideoak partekatzea, eta horien arteko biko genero, edertasun edo arrazarekin zerikusia duten arauak apurtzen zituztenak aukeratu zituen. Horrela, artista arabarrak kontakizun inklusibo berriak sortzea bilatu du, zeinetan lan berriek egungo historia berridatziko duten.

Beharrezko jo zuen material guztia behin aukeratuta, Bilboko Udaleko produkzio artistiko zentroko artista bekadunak momentu iragankorrak margoztu zituen, amaraunean sekula gehiago existituko ez diren liparrak, hain zuzen.

`Self Identity is a Visual System` erakusketaren mezuak, azken finean, 80. hamarkadan Internet sarea era guztietako informazioa askatasun osoz bilatzeko tresna gisa aurkezten zela erakusten du eta, hainbat urteren buruan, gizarte sarean sorrerarekin batera, diskurtsoa nabarmen aldatu da: Erabilera eta eduki oro aztertzen da amaraunaren barruan kontsumituko dena aukeratzeko. Identitatea, nahierak eta nortasuna salgaiak dira ameskeria baten barruan. Aldi berean, gizarte sareek itxura

erradikala eskaintzen dute zeinetan, horren ireki eta eskuragarri izanik, mainstream motako hedabideetan aurkitu ohi ez diren edukiak partekatu ahal diren.

Erakusketa ikusgai egongo da astelehenetik ostiralera bitartean eta 17:30etik 20:30era, eta sarrera doakoa izango da 2017ko irailaren 28tik aurrera eta urriaren 18ra arte.

GALA KNÖRR

Londres hirian bizi da eta bertan lan egiten du. Arte Ederretan lizentziatu zen Pariseko `Parsons The New School For Design de París´ eskolan, Frantzian. Arte Ederretako Masterrarekin graduatu zen Londresko Central Saint Martins eskolan (Erresuma Batuan). Nazioarte mailan hainbat beka jaso ditu, artista egoiliarra izan da eta sari ezberdinak jaso ditu; hain zuzen ere, egoiliar artistikoa izan da Pariseko (Frantzia) Cité Internationale des Arts izenekoaren 50. urteurrenean, duela gutxi 2017ko Premi Miquel Casablanacas-eko finalista izan da eta Solomon R. Guggenheim Museum delakoaren eta Bilboko Guggenheim museoaren Basque Artist Program izeneko beka jaso du.

Informazio gehiago / Más información



BilbaoArte

Prensa y Comunicación / Prentsa eta komunikazioa

Alicia Prieto / Asier Amundarain

639 68 97 09

e-mail:prentsa@bilbaoarte.eus

NOTA DE PRENSA

LA ARTISTA GALA KNÖRR UTILIZA LA RED SOCIAL SNAPCHAT PARA CREAR LA EXPOSICIÓN `SELF IDENTITY IS A BAD VISUAL SYSTEM´

El centro de producción artística del Ayuntamiento de Bilbao tendrá abiertas las puertas de esta muestra entre el 28 de septiembre y el 18 de octubre en la sala de exposiciones

(Bilbao, 28 de septiembre de 2017). BilbaoArte inaugura su nueva exposición `Self Identity is a Visual System´ de la artista becada en 2016 Gala Knörr. En esta muestra, compuesta de pinturas de pequeño y gran formato, el visitante podrá ver diferentes personajes y composiciones de carácter inclusivo basados en contenidos efímeros que Knörr ha capturado en internet en el último año.

`Self Identity is a Visual System´ toma el título del ensayo que Susanne Von Falkenhausen publicó en e-flux journal durante la 56 edición de la Bienal de Venecia y basa su trabajo en la red social Snapchat, un espacio intrigante debido a su carácter efímero, ya que los contenidos publicados en esta red social desaparecen pasados unos segundos. Gala Knörr pidió a diferentes usuarios de internet que compartiesen imágenes y vídeos de su experiencia diaria en Snapchat, seleccionando a aquellos con un perfil que rompiera con las normas de género binario, belleza o raza preestablecidas. Así, la artista alavesa busca generar nuevas narrativas inclusivas en las que sus piezas re-escriben la historia presente.

Una vez tener seleccionado el material la artista becada en el centro de producción artística del Ayuntamiento de Bilbao ha pintado momentos, instantes que en la red ya no existirían.

El mensaje de la exposición `Self Identity is a Visual System´ deja ver también como a finales de los años 80 internet se presentaba como una herramienta en la que poder buscar toda la información necesaria con total libertad y que años después, con el nacimiento de las redes sociales, el discurso ha cambiado mucho: Todo uso y contenido generado es analizado para seleccionar, por ejemplo, qué consumir dentro

de internet. La identidad, los gustos y personalidad son objeto de comercio dentro de un espejismo. Simultáneamente las redes sociales tienen un aspecto radical en el que, debido a su accesibilidad, se puede compartir contenido que regularmente no se encontraría en los medios mainstream.

La exposición permanecerá abierta de lunes a viernes de 17.30 a 20.30 h. y la entrada será gratuita entre el 28 de septiembre y el 18 de octubre de 2017.

SOBRE GALA KNÖRR

Vive y trabaja en Londres. Está licenciada en Bellas Artes por la Parsons The New School For Design de París, Francia. Se graduó con un Máster en Bellas Artes de la Central Saint Martins de Londres (Reino Unido). Ha recibido becas, residencias y distinciones internacionales entre las que se incluyen una residencia artística en el 50^a aniversario de la Cité Internationale des Arts de París (Francia) y recientemente, como finalista del Premi Miquel Casablanca 2017, y la beca Basque Artist Program de The Solomon R. Guggenheim Museum y Guggenheim Bilbao.

Informazio gehiago / Más información



BilbaoArte

Prensa y Comunicación / Prentsa eta komunikazioa

Alicia Prieto / Asier Amundarain

639 68 97 09

e-mail:prentsa@bilbaoarte.eus